

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO SAILA

2971

AGINDUA, Herrizaingoko sailburuarena, 2012ko maiatzaren 18koa, gidaririk gabeko ibilgailuen alokairuan diharduten establezimenduek Ertzaintzari eman beharreko erregistro- eta informazio-mailako betebeharrak nola gauzatu behar dituzten azaltzeko dena.

Herritarren segurtasunaren babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12. artikulua ezartzen duenez, herritarren segurtasunerako nabarmenak diren jarduerak burutzen dituzten pertsona naturalek edo juridikoek dokumentuak eta informazioa erregistratu behar dute, indarrean den araudian xedatu bezala. Motordun ibilgailuen alokairuari lotutakoak herritarren segurtasunerako jarduera nabarmen horietako batzuk dira.

Otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12. artikuluan zerrendatutako establezimenduen titularrei ezartzen zaizkien betebeharrak dira: eragiketa bakoitzerako parteak idaztea, eta bestelako jakinarazpenak egitea polizia-agintaritzari; izan ere, horien bidez, delitu-jarduerak prebenitu eta esatea lortu nahi da. Betebehar hauek «segurtasun publikoa» atalean kokatzen dira.

Dudarik gabe, baliabide telematikoen erabilerak aurrekaririk gabeko aukera bat eskaintzen du Administrazioak, segurtasun publikoaren arduradun gisa, herritarrei eman beharreko zerbitzua hobetzeko; izan ere, dokumentuak eta informazioa erregistratu behar duten establezimenduek Ertzaintzari berehala emango diote segurtasun publikorako garrantzizko informazioa, eta, horren ondorioz, jarduera horien gaineko kontrola handiagoa izango da.

Agindu honetan ezartzen da gidaririk gabeko ibilgailuen alokairuan diharduten establezimenduek Ertzaintzari jakinarazi behar dizkiotela, bide telematikoak erabiliz, egiten dituzten eragiketak, herritarren segurtasunerako duten garrantziagatik.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 17. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak du bere lurraldean pertsonak eta ondasunak babesteko eta ordena publikoa gordetzeko eskumena. Hori dela eta, Ertzaintzak du herritarren segurtasunerako jarduera nabarmen horiek kontrolatzeko ahalmena.

Aurretik azaldutako guztiagatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez, gidaririk gabeko ibilgailuen alokairuan diharduten establezimenduen titularrek Ertzaintzari eman behar dizkioten erregistro- eta informazio-mailako betebeharrak nola gauzatu behar dituzten arautzen da. Betebehar horiek indarrean dagoen legerian jasota daude.

2. artikulua.– Datuak bide telematikoak erabiliz Ertzaintzari jakinaraztea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko gidaririk gabeko ibilgailuen alokairuan diharduten establezimenduen titularrek egunero jakinarazi behar diote Ertzaintzari, bide telematikoak erabiliz, egiten dituzten eragiketei buruzko informazioa (horretaz dihardu agindu honen 1. eranskinaren 1. atalak).

2.– Horretarako, Administrazioak <http://www.ertzaintza.net> web-orrian ezartzen dituen baldintza teknikoak eta ezaugarriak bete beharko dira, 1. eranskinaren 2. atalarekin bat etorritik.

3.– Informazioa jaso eta gero, Ertzaintzak, bide bera erabiliz, jaso izanaren berri emango du.

3. artikulua.– Erregistro-liburua eta alokairu-partea.

1.– 2. artikuluan aipatutako komunikazioa gorabehera, establezimenduen titularrek eragiketa bakoitzeko alokairu-parte bat bete beharko dute. Parte horiek establezimenduek berek sortuko dituzte, eta, aurrerantzean, agindu honen 2. eranskineko ereduari egokituko zaizkio.

2.– Ibilgailuen alokairu-partea errentatzaileek eta errentariak sinatu beharko dituzte, eta eredu ofizialaren ezaugarriak eta formatuari eutsiko dizkiete beti.

3.– Establezimenduek urtero erregistro-liburu bat egingo dute, parteak bilduko dituen, eta eragiketa bakoitzerako aurkeztu beharko dute, baina ez da zertan bideratua izango.

4.– Erregistro-liburuak hiru urtez gordeko dira establezimendu horietan, azken erregistro-orriaren egunetik hasita, eta gai horretan instrukzio-eskumenak dituzten Ertzaintzako kideen eskura egongo dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.– Agindu honetan aipatzen diren establezimenduen titularrek sei hilabete izango dituzte, indarrean hasten den egunetik hasita, aginduan aurreikusitakoetara egokituzko.

2.– Epe horretan, agindu honetan aipatzen diren komunikazioak bide telematikoa erabiliz egin ezin dituzten establezimenduen titularrek Udaltzaingoak Koordinatzeko eta Segurtasun Pribatuko Zuzendaritzari honako hau jakinaraziko diote: zer bide erabiliko duten beren komunikazioak egiteko, zergatik ezin duten egin komunikazio telematikoa, eta noizko erabiliko duten sistema hori (horretarako, sei hilabete izango dituzte gehienez ere).

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 18a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

1. ERANSKINA

ERTZAINTZARI JAKINARAZI BEHARREKO INFORMAZIOA

1.- Ertzaintzari jakinarazi beharreko datuak.

Ertzaintzari honako informazio hau jakinarazi beharko zaio:

a) Errentatzailearen datuak:

Izena

IFZ

Helbidea (kalea, zenbakia, herria, lurralde historikoa): eragiketa egiten den lokalari dagokiona izango da, enpresaren egoitza soziala nahiz ordezkartza bat izan.

b) Eragiketari buruzko datuak:

Hurrenkera-zenbakia:

Alokairu-data eta itzultze-data (honela: uuuu.hh.ee)

Non jasoko den

Non itzuliko den

Ibilgailua (marka, modelua, matrikula, kolorea)

Erabiltzailea:

Agiri-zenbakia

Agiri-mota: Espainiarrak: NANA, pasaportearen edo gidabaimena. Atzerritarak:

Pasaportearen, nortasun-gutunaren edo -agiriaren, Espainian bizi diren atzerritar egoiliarrentzako bizileku-baimena -indarrean dagoena.

Norbanakoaren identifikazioa (izen-deiturak)

Sexua (E=emakumea / G=gizona)

Jaioteguna (uuuu.hh.ee)

Jatorrizko nazionalitatea (herrialdearen izena)

Ohiko helbidea (kalea, zenbakia, herria, probintzia/herrialdea).

Noiz behinkako helbidea (kalea, zenbakia, herria, probintzia/herrialdea).

2.- Aplikazioan sartzeko eta datuen komunikazio telematikoaren egiteko zehaztasun orokorrak eta baldintza teknikoak erabiltzailearen gidaliburu batean jasota daude, helbide honetan: www.ertzaintza.net.

2012ko ekainaren 29a, ostirala

2. ERANSKINA

GIDARIRIK GABEKO IBILGAILUEN ALOKAIJUAREN
ERREGISTRO-LIBURUKO PARTEAREN EREDUA

Enpresa Errentatzailearen datuak

Izena IFZ

Helbidea Kalea Zk.

 Udalerria

 Lurraldea

Operazio datuak

Erregistro zk.

Alogera data

Entrega lekua

Aurreikusitako itzulera data

Aurreikusitako itzulera lekua

Ibilgailua

Marka

Modeloa

Matrikula

Kolorea

Erabiltzailea

Dokumentu Zk.

Agiri-mota

Lehen abizena

Bigarren abizena

Izena

Sexua

 Emakumea GizonaJaioteguna Jatorrizko herritartasuna

Ohiko bizilekua

Kalea Zk. Udalerria Probintzia

Noizbehinkako bizilekua

Kalea Zk. Udalerria Probintzia

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5.artikuluarekin bat etorri eta Herritarren Segurutasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu, informazio hau kudeatzeko, bildutako datu pertsonalak (PZDZ) Polizia Zerbitzuetako Datuak Lantzeko Zentroaren fitxategiaren 12 IBILGAILUAK ALOKATZEA ETA DESEGITEA fitxategian sartuko direla. Fitxategi automatizatuan agertzen direnek eskubidea dute datuen aurka egiteko nahiz datuak ikusi, zuzendu edo deuseztatze, fitxategiaren arduradunaren aurrean, Kabinete eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritzan (Larrauri-Mendotxe Bidea 18, 48950 Erandio / Bizkaia).

 (e)n, (e)ko (a)ren a

Errentatzailearen zigilua eta sinadura

Errentariaren sinadura